



Euskarari ateak zabaldu dizkiote Alegian, jai giroan

UEMA EGUNA ▶ 'Herria da gorputza, hizkuntza bihotza euskararen taupada txintxarion hotsa' lelopean egin zuten igandean; ekitaldi ofiziala, dantzariak, abesbatza, txekor jatea, trikitilariak, txistulariak... izan ziren ▶ 5



Dantzarien emanaldia, igandean, plazan. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS



San Pedro jaietako azken eguna ere izan da ekitaldiz beterikoa

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Herenegun esan zieten agur aurtengo San Pedro jaietara Areson, Asteasun, Larraitzen, Leaburu-Txaraman eta Urkizun. Azken eguna izan arren, ez zen ekitaldirik eta festa gogorik falta izan. Besteak beste, Leaburun jokaturako asto proban Zuhaizkiko sei langileek irabazi zuten astoaren eta bi laguntzailearen aurkakoa (argazkian) . HITZA ▶ 6

TOLOSA ▶

Jokin Otaegi igerilaria Espainiako Txapeldun infantiletan ▶ 3

ASTEASU ▶

Udaletxe atzeko parke berria, erabiltzeko prest ▶ 4

TOLOSA ▶

Disko Top-a eta auzo bazkaria, jendetsuenak



Bukatu dira Amaro z auzoko jaiak ▶ 2

80 lagun elkartu zen igandean auzo bazkarian. M. SOROA

Zure etorkizunak kontatzen du

Zure lana, Zure lagunak, Zure familia, Zure bikotea, Zure kultura, Zure etorkizuna

MATRIKULA ZAITEZ

Berri postulekua, 90 - Donostia
Tfn. 943 316 900 - www.cebanc.com

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

DETALARITZA ETA TURISMOA

- Jaietako arloa.
- Sukalderitza.
- Deontologia eta ekigintza.
- Ostalaritza arloa.
- Etxeko agentziak.
- Turismo informazio eta merkataritza.

INFORMATIKA

- Informetika-sistemen administrazioa.
- Lortu mailako aplikazioen garapena.
- Sistema informetikoaren ustaltzapea.

MERKATARITZA ETA MARGETINA

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kulaketa eta merkataritza.
- Merkataritza.

ADMINISTRATZIOA

- Administrazio eta finantza (A eta DE).
- Idazkeritza.
- Administrazio-kudeaketa.

LANBIDE HASTAPENEN KASTURTEA

JAIK ▶

Disko Top-a eta auzo bazkaria ekitaldi jendetsuenen artean

IV. Antzerki Astearekin hasi zituzten jaiak amaroztarrek, eta zazpi egunen ondoren igandean amaitu zituzten



Igandean egindako auzo bazkarian 80 lagun inguruk hartu zuten parte. MADDI SOROA

ESTI EZEIZA

Isiltasuna nagusitu da berriro Amaroeko kaleetan. Ospakizunez betetako hiruro egunen ondoren, amaitu baitira Tolosako auzo honetako jaiak. Haurrentzako jolasak, lehiaketak, bazkariak, danborrada... festa giroa zabaltzeko egitaraua proposa osatu zuten amaroztarrek.

Festa Batzordeko kideek HIZARI esan diotenez, ostiralean, festen lehendabiziko egunean ez zen jende gehiegi ibili. Hala ere, hau izan zen kanpoko lagun gehien bildu zituen eguna. Ondorengo bi egunetan, bizilagun gehiago animatu ziren festara. Hala, ekitaldi jendetsuenetako bat larunbat gaueko Disko Top festa izan zen, gaztetxo ugari hurbildu baitziren dantzarako saio apropos honetara. Egun berean jokatu zen bakailao lehiaketa, ajoarriero goxoa ea nork sukaldatzen zuten erabakitzeke. Hala, ha-

maika sukaldarik eta beraien taldeak hartu zuten parte norrehigokan.

Bestalde, igandeko, jaietako azken eguneko auzo bazkarian, 80 bat lagunek hartu zuten parte. Hauek bapo jan eta edan zuten beroari aurre egin ahal izateko. Beste horrenbeste lagun bildu ziren berriz, 20:00etan, afari-meriendara. 45 kilo sardin erre zituzten antolatzaileek, eta hauek denak jan zituzten hara joan zirenek, sagardo eta musika alaiarekin lagunduta. Hala ere, festetako protagonista handienetakoak haurrak izan dira, etxeko txikientzako gauza ugari antolatuta baitzituzten asteburuan. Horien artean: jolasak, puzgariak eta eskulanak.

Amarozko Festa Batzordeko kideen esanetan, «berez taldean bost lagun bakarrik badira ere, jende ugari aritu da laguntzen, eta herritarrek antolatutako ekintzetan, orokorrean, parte hartu dute».

Erromeria

Berrikuntzen artean, igandean, Erromeria bat egin zuten. Joan den urte arte Amaroeko dantzariak betetzen zuten igande goizeko programa, auzoan zehar dantza erakustaldiak eginez, baina aurtan, edonodi zabaldu zaio parte hartzeke aukera. Hala, lehenengo, goizeko 10:30ak, 11:00ak aldera, San Blas ermitako plazan bildu ziren gosari legea egiteko. Bakoitzak bere janaria eman zuen, baina edateko sagardoa eta ura auzo-elkarteak jarri zuten. Han izan ziren eregoiza alaitzeko eta dantza egiten laguntzek, trikitilariak eta txistulariak.

Hamaiketako bukatu eta gero, eta indarrak hartuta, Amaroeko dantza taldekoak kalejiran ibili ziren auzoan zehar. Eta bidean egindako geldialdien artean, besteak beste, Bedaiko Ingurutxo dantza zuten.

POLITIKA ▶

Kontzentrazio jendetsua, eskubide zibilen alde

Ostiralean 150 lagun bildu ziren Triangulora, «eskubideen urraketa salatzeke»

E. EZEIZA

«Euskal Herrian etengabe eskubide zibil eta politikoak urratzen ari direla salatzeke» elkarretaratzea egin zuten ostiralean 150 lagun inguruk, eskualdeko hainbat eragilek deituta. Baina bereziki gaitzetsi nahi zutena Tolosan gerta berri diren ekintzak izan ziren, «Tolosako herriaren zati handi bat ukatua izan baita».

Izan ere, joan den astean, Kultur Etxean, Batasuneko bildura bilduta zegoenean, Ertzaintza agertu zen, bilera eten, debekatu eta han zeudena kalera ateraraziz. Hala, Tolosako hainbat eragilek atxikimendua adierazi nahi izan diete bertan zeudenei, eta jazotako gertakari honen aurrean, euren desadostasuna azaldu. Beraz, «ekintza hau oso larritzat» jotzen dute: «Honekin, oinarriko eskubide zibilak eta politikoak urratzen eta zapaltzen dituzte argi eta garbi. Nazioarteko eskubideen inguruko legedia gogora

ekarrita: pertsona guztiak berdinak dira legearen aurrean eta inor ezin da diskriminatu norberaren iritziengatik. Aitortzen du, era berean, askatasun ideologikoa eta eskubidea, askatasunez adierazteko eta zabaltzeko, pentsamendu, ideia eta iritziak».

Ordenamendu juridiko horrek berak «aitortzen du, bestalde, eskubidea, bakean elkartzeko iraganbide publikoak ez diren tokietan, alde aurretik baimena eskuratu beharrik gabe eta agintariak jakinaren gainean jartzeko obligaziorik gabe». Horregatik, Ertzaintzak jokabide horrekin, «inongo zalantzarik gabe», tolosar hauen eskubide zibilak eta politikoak urratu dituela uste dute. «Eta edozein gizartetan errespetatu behar diren eskubide demokratikoei eraso die. Gainera orain, Euskal Herria normaltza politikoa eta eskatasunez erabakitzeke eskubidea lortzeko ahaleginetan dabilen momentuan».

KULTURA ▶

Irailaren 9an Cotti eta Bide Ertzean, Tolosan

Tolosaren 750. urteurren delata eta antolatutako ekitaldien artean, kontzertu erraldoi batez gozatu ahal izango da irailaren 9an. Tolosako Bide Ertzean taldeak eta Cotti nazioarte mailan izen handia duen musikari argentinarra emanaldi berezi bat eskainiko dute Tolosako zezen-plazan. Bertara joan nahi duenak eskuragarri ditu dagoeneko sarrerak Servikutxan, www.kutxa.net helbidean, edo 943 00 12 00 telefono zenbakian.

KIROLA ▶

Udan ere kirola egiteko aukera ugari, Usabalen

Uda honetan ere, ez dago kirola ez egiteko aitzakiarik, ikastaro eskaintza zabala atera baitu Usabal kiroldegia. Eta hauetan izena emateko epea irekita dago oraindik. Haurrentzako jarduerak dagokienez, futbol hobekuntzarako stage-a, multikirolak, batuka, cycling-a, igeriketa, urpekaritza, piraguismoa eta tenisa dituzte. Helduei dagokienez, berriz, cycling-a, aerobika, acuagyma, pilates-a, yoga, mantenu gimnastika, paddela, urpekaritza...

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetetan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak. Anoeta, Beasain, Bergara, Sorulaze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro...

udalbetetan administrari laguntzaileak behar dira.

943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitze: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

Peoiak. Udalbetetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeko libre.

943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

KIROLA ▶

Jokin Otaegi igerilaria txapeldun, Espainiakoan

Tolosaldea IKTko igerilariak infantil mailan 200 metroko proban irabazi eta beste bi domina lortu zituen; Eneka Muñagorri ere Gipuzkoako marka hautsi du

NOELIA LATABURU

Pasa den astean Espainiako igeriketa Txapelketa garatu zen Alacanten (Herrialde Katalanak), infantil mailan, non Tolosaldea IKT taldeak izan baitzuen ordezkariarik, Jokin Otaegiren eta Eneka Muñagorriren eskutik. Bi igerilari gazteekin batera taldeko zuzendari tekniko eta entrenatzaile Idoia Gibelalde ere izan zen.

Esperientzia «ikaragarria» izan zen, eta emaitzak ere «ez nolanhikoak». Izan ere, Otaegik hiru domina jantzi zituen, urrezkoa, zilarrezko eta bronzetza, hain zuzen ere. Lehen



Ezker-eskuin: Jokin Otaegi, Idoia Gibelalde eta Eneka Muñagorri. HITZA

postua 200 metro askeetan erdietsi zuen, 2.09.26ko denborarekin. Garaipen honekin Gipuzkoako eta Euskadiko errekorra hautsi du 13 urteko igerilariak. 1989tik zegoena gaindituz. 100 metro askeko proban ere egin ditu Gipuzkoako eta Euskadiko denbora onenak eta zilarra lepoan zintzilikatu zuen, gainera. Hirugarren postua, berriz, Euskadiko selekzioarekin batera eskuratu zuen, 4x200 askeko lasterketan. «Lan bikaina», beraz, Otaegik burututakoa; batik bat, aintzat hartuz 10 aste lehenago besoan haustura izan zuela, entrenamenduak oztopatuz.

Entrenatzailea ere «pozik»

Eneka Muñagorri, bestalde, beste hainbat probetan aritu zen eta «urduriago» egon bazen ere, denbora garrantzitsuak lortu zituen. Bi finaletan igeri egitea lortu zuen bular igeriketan, 100 eta 200 metrotan, bederatzigarren postua eskuratuz. Azken proba honetan, gainera, Gipuzkoako errekorra hautsi zuen, 2.55.67ko denborarekin.

«Giro ezin hobea, eguzkia eta ondo egiteko gogo handia izan zuten gure bi igerilariak», IKTko arduradunek azaldu zuten. «Urduritasuna» ere nabaria zen bi gazteengan eta emaitzak ikusita, «lan bikaina egin zuten txapelketak irau zuen hiru egun hauetan». Entrenatzaileak ere «poza» agertu zuen haren ikasleen lanarekin. Alacanteko 50 metroko igerilekuan aritu ziren igerilariak, ekainaren 27tik 29ra bitarte. Guztira, 19 autonomia erkidegoko 334 igerilari hartu zuten parte, horietatik 162 mutilak eta 172 neskak.

MERKATARITZA ▶



Iglesias eta Esnaola, irabazleak

Erredakzioa ▶ Igarondo Merkatarien elkarteko sanjoanetako proposioak baditu irabazleak: 600 euroko txekea Carmen Esnaola tolosarrarentzat izan da —argazkian, eskuinean—, Aralar Kirolak dendan betetako txartelarekin; eta 300 eurokoa German Iglesias ibartarrari egokitu zaio —argazkian, ezkerrean—, Richard argazkiz denda lortutakoa. Maiatzaren erdialdean ekin zioten elkarteko denda partaideak zozketari, euren bezero guztien artean datuekin bete beharreko txartelak banatuz. HITZA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
 Tel.: 943 65 50 37
 Faxa: 943 65 09 44
 e-maila: enia@inmoenia.com
 www.inmoenia.com

Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Oso bista onak.

Amezketeta. 2 logela. Ezin hobeto. Nahiko eraikuntza berria. Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin. 207.380 euro.

Amezketeta, Belauntza, Gabiria, Hernalde, Ibarra, Villabona-Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliarrak, adosatu eta eraikitzeko partzela.

Anoeta. San Joan. Eraikuntza nahiko berriko duplexa. Garaje itxiarekin.

Anoeta. Martxan dagoen taberna-jatetxea alokairuan. Informazio pertsonala.

Ibarra. Euskalerria kalea. Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntzarekin. 250.620 euro.

Ikaztegieta. Eraikuntza nahiko berriko 170 m²ko duplexa. **Leaburu bidean.** 600 m²-ko pabilioia, bi solairuetan banatuta, 2.500 m²-ko zelaiarekin. **Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat

etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. San Esteban. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Sartzeko moduan. 198.335 euro.

Tolosa. Erdialdean, eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logelekin. Terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, egongela, sukaldea eta bi bainugela.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m². 2 eta 3 logela,

sukalde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berrituak. Estreinatzeko.

Tolosa. Araba etorbidea, 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 25 m²-ko trastelekua eta garajea.

Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, trastelekua. Garaje itxia aukeran. 346.660 euro.

Villabona. Kale berria. Eraikuntza berriari pisu altua. 100 m². Garaje itxiarekin.

ADUNA ▶ POLITIKA

Torturaren inguruko hitzaldia

Erredakzioa ▶ Aurreko astean torturaren inguruko hitzaldia egon zen Adunako Kultur Aretoan. Gai horretaz hitz egiteko, Nekane Txapartegi asteasuarrak joan zen, bere esperientziaren berri emateko, eta, oro har, torturatu guztien egoeraz hitz egiteko. Horrez gain, 18/98 prozesuaren inguruan ere mintzatu zen, eta une honetan gauzak nola dauden azaldu zuen. Torturari dagokionez, duela 20 urte baino gehiagotik hasita, 8.000 pertsonak jasan izan dituztela torturak salatu zuen.



ASTEASU ▶ AZPIEGITURAK

Bi zona ezberdin dituen parke berria irekita dago jadanik

Udaletxearen atzean kokatzen da eta guztira 90.000 euroko aurrekontua izan du

ERREDAKZIOA

Haurrentzako parke berria jarri berri dute Asteasun. Udaletxearen atzean kokatzen da, eta bi zati ditu: bata gaztetxoentzat (6 urte baino gehiago dituztenentzat) eta bestea haur txikiakentzako (0-6 urte biartekoentzat). «Nahiko gustura dago jendea parkearekin», azaldu du Iñaki Amenabar alkateak. Zoru jarraitua du eta horrek beste itxura bat ematen dio parkeari. Gainera, horrela ezastruktura gehiago irauten du.

Parkearen diseinua egiteko batzorde bat osatu zuten Udaleko ordezkariak eta guraso elkarte ordezkariak. Aurrekontua, guztira, 90.000 eurokoa izan da. Jarritako jokoak Suediako Hags enpresak diseinatutakoak dira. Ohiko ele-

mentuez gain, itxura berritzailea duten beste joko batzuk daude.

Esan bezala, bi zati ditu parkeak. Sei urtetik aurrerakoan aldean Akito Quattor izeneko ezastruktura nabarmentzen da. Besteak beste, bertan bela nagusia, eskailera bertikala, ontzi-kroskoa, buia flotatzaileak eta orri makurra daude. Guztiek imaginazioa lantzeko diseinatuta daude. Ezastruktura handi horrez gain Olatuak izeneko jokoak dago eta hiru oholekin osatutako oreka-jolasak daude.

Txikiak ere badute bere aldean ezastruktura nagusi bat. Bertan ezagunagoak diren jolasak aurki daitezke. Bestalde, haurrentzako parke batean beti lekua duten kulunkak ere badaude.



Ontzi-kroskoan jarrita ikuspegi ederra izan daiteke. I. GARCIA



Txikiak kulunketan jostatzeko aukera dute. I. GARCIA

ANOETA ▶

Alkartasunak bihar egingo du batzar orokorra

ERREDAKZIOA


Alkartasuna Biltokiak batzar orokorra egingo du. Bihar izango da bilera, 18:30ean. Jorratuko dituzten gaiak ondorengo hauek izango dira: egoera ekonomikoa eta Biltokiko tabernaren egungo egoera. Ondoren, ohi bezala, galderak eta erreguak egingo dituzte. Alkartasunako juntatik ahal duten kide guztiak azaltzeko eskatu diete.

Bestalde, oraindik aukera dago hilaren 20ean Alkartasuna Nafarroako Erriberara egiteko den promozio-bidaiarako. Goizeko zazpiak eta erdietan abiatuko dira eta 8 euro balioko du bidaiak, gosaria eta bazkaria barne. Besteak beste, Nafarroako helgoalderako bisitan Castejon eta Alfaro bisitatuko dituzte.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruia. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leizta): 608 873016
- Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ lurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



• Dietak:
jarraipen eta berme
osoarekin
(dieta errazak)

• Haurrentzako osagarriak
• Haur elikadura
• Dermokosmetika

lurre auzoa, 7 (Maxi-Eroski parean) • 20400 Tolosa
Tel.: 943 57 95 28

ALEGIA ▶ EUSKARA

UEMA Eguna herrikoek edertu dute

Ohitura euskaldunak oinarri, euskarari ateak merezi bezala zabaldu dizkiote

NEREA URBIZU

Giro atsegina izan zen Alegian igandeko egun osoan zehar. Izan ere, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko eguna egin zuten bertan.

Herrikoak izan ziren protagonista, haiek sortu baitzuten musika, haiek dastatu zuten txekorra, eta haiek emango dute euskararen aldeko pauso handiagoa.

Goizean goizetik herriko txistulariek eta trikitilariak kanta alaiak jo zituzten, kale guztietan zehar.

11:00etan, Kultur Etxean UEMAko Batzar Nagusia burutu zuten hainbat kidek eta Udaleko ordezkariak. Udal Pleno Areatoan Alegiako Udalaren Batzarrak egin zuten gero. Bertan, egunak berak harekin zekarrena ospatu zuten, hain zuzen

ere, Alegia UEMAko partaide izatearen onarpena. Arin egin zuten ekitaldia, espero baino agudoago. Sinaketa egin zuten ondoren hainbat zinegotzik, UEMA sartzeko adostasunarekin bat eginez.

Hurrengo ekitaldi ofiziala hitzaldia izan zen, bertsolariak, dantzariak eta abesbatzak izanik. Txintxarri abesbatzak Txoria Txori abestu zuen. Herriko dantzariak aurraskua eskaini zieten ikusleei, eta txikiek ere haien saiotoxa egin zuten.

Amara Agirre eta Iratxe Ibarra bertsotan aritu ziren, UEMAri buruzkoak sortuz. Aurkezpen lanetan Felix Irazustabarrena aritu zen.

Miren Urreiziti UEMAko lehendakaria alegitarrei zuzendu zitzaizten, herritarren konpromisoak zeintzuk izan behar duten gogoratuz.



Olatz Amundarain alkateak euskararen alde egin beharreko lana azpimarratu zuen. MADDI SOROA

Jone Josie Euskal konfederazioko kide azkaingarra ere Iparraldeko euskararen egoeraz aritu zen, ofizialtasuna izan zelararik bere hitzetan oinarria.

Azkenik, Olatz Amundarain alkatea herritarren aurrean eskaini zuen hitzaldia, «erantzukizuna eta orain arteko euskararen aldeko lanak indartzea» azpimarratu zituen.

Ondoren, bertsolariak agur bana eskaini zituzten, eta Ba-

liarraingo txekor jateko prestatzaileei eskerrak eman zizkieten, goiz osoa eman baitzuten txekorra prestatzen.

Arratsaldea ere girotua

«Bazkari mundialaren» ondoren, Gartxot eta Edortarekin herri kantak abestu zituzten bertan zeuden 154 mahaikoekin batera. Bide batez, 12 baliarrindarrei txintxarri handi bat

eman zieten, txekorra prestatzearen lana hartu zutelako, eta emaitza «ezin hobea» izan zelako.

Arratsaldean zahagiardoa izan zen, bakoitzak bere etxetik ekarritakoa janean, eta bertan zegoen ardoa dastatuz.

Euskarak Alegia UEMA sartzarekin beste bultzada bat jasoko du: herritarren go-goaren eta konpromiso mailaren esku dagoen bultzada.

IKAZTEGIETA ▶

Ireki da zabor bilketa tasaren ordainketa epea

Ikaztegiatan, 2006ko lehen sei hilabeteko zaborbilketa tasari dagokion errolda onartu da, eta ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarri dira. Ordaintzeko epea abuztuaren 3ra arte izango da, eta ordainketa banketxetan nahiz udaletxean egin daiteke. Helbideratutako ordainagiriak abuztuaren 3an kobratuko dira.

IKAZTEGIETA ▶

Kutturrun giltza batzuk aurkitu egin dituzte

Pasa den asteburuan, larunbatean, hain zuzen, giltza batzuk aurkitu zituen ikaztegiatiko herritar batek. Kutturrun atsedenekuan zeuden giltza horiek. Inork galdu izan baditu, bertako udaletxean utzi dituzte, eta hauek jasotzeko handik pasatu behar da, goizez bakarrik: 09:00etatik 15:00etara bitartean, zehazki esanda.



Kutturrun atsedenekua. o. e.

ALEGIA ▶

Uztailan zehar, Miren Ortegaren margolanak

Beasaingo Miren Ortegaren margolanak ikusgai izango dira uztaila osoan zehar, Alegiako Jubilatuen tabernan. Egunero ikusi ahal izango da, astelehenetan izan ezik. Gogoratu ere, abuztuaren zehar taberna itxirik egongo denez, bertan ikus daitekeen azken erakusketa izango dela. Irailan izango da hurrengo erakusketa.

ERREPIDEAK ▶

Nafarroara joateko autobia, gauze, itxita

Nafarroarako autobian obrak egingo dituzte, Adunatik Berastegira. Asteazkena arte izango dira obrak, baina gauze bakarrik; hau da, 23:00etatik 06:00etara egongo da itxita. Har daitezkeen bideak Azpirozkoa (Lizartatik barna) edota Leitzara doana (Ibarratik jarraituta) dira. Kontrako norabidean ez da mozketarik izango.

<p>SELEKTIBITATEAN 2006. URTEAN %100 GAINDITUAK!</p> <p>BATXILERGOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> -Giza eta Gizarte Zientziak -Natur eta Osasun Zientziak -Tecnologikoa 	<p>LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK</p> <p>Erdi Mailakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Mekanizazioa -Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak <p>KOLOKAZIO MAILA OSO ALTUA!</p> <p>Enpresa-praktikak bertan eta atzerrian (aurten ipar irlandan, polonian eta lituanian)!</p>	<p>Goi Mailakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Proiektu Mekanikoen Garapena -Instalazio Elektroteknikoak -Gizarte eta Kultur Animazioa 	<p>IES Hernani BHI A. Iturriago - K. Labaka</p> <p>Matrikula epea: ekainaren 30etik uztailaren 6 arte</p> <p>SANTA BARBARA AUZOA eta KARMELO LABAKA HERNANI TELEFONOA: 943 551188 WEB: www.hernanibhi.com E-MAILA: institutua@hernanibhi.com</p>
--	--	--	--

SAN PEDRO JAIAK ▶



Larraitz. Hamaiketakoaren ostean, trikitilarien eta bertsolarien saioaz gozatzeko aukera izan zen herenegun. Ondoren, bazkarian bildu ziren auzokideak. MADDI SOROA



Urkizu. Herenegun eguerdian, Toka Txapelketarekin batera, hamaiketako hartu zuten auzokideak. Trikitilarien doinuak alaitu zuten bertan giroa. MADDI SOROA



Areso. Larunbatean eskea baserrietan egin zuten bezala, herenegun, herrian zehar egiteko txanda izan zen. Arratsaldean, Joxe Anjelen doinuak izan ziren entzungai herriko plazan. MADDI SOROA



Leaburu. Goian, herenegun egin zen Leaburu-Txaramako Udaleko 1. Toka Txapelketako 6 irabazleak (Pedro Mari Mazizidor orokorrean, eta Pedro Esnaola herrikoan izan ziren garaileak). Behean, bailarako presoiei bidaltzeko larunbatean egin zuten *Euskal presoak Euskal Herrira* konzentrazioko argazkia. HITZA



«Bukatu da bukatu da aurtengoak akabo»

Herenegun eman zieten amaiera San Pedro jaiiei Areson, Asteasun, Larraitzen, Leaburu-Txaraman eta Urkizun

IÑIGO TERRADILLOS

Agur esan diete Areson, Asteasun, Larraitzen, Leaburun eta Urkizun aurtengo San Pedro jaiiei, asteazkenaz geroztik ekitaldiz beteriko egunak igaro ostean.

Herenegun, esaterako, bi eskualdeetako bost herrietan izan zen zertaz gozatua; Areson, eskea herrian zehar egiteko txanda izan zen; Asteasun, pilota eta herri kirolak izan ziren nagusi; Larraitzen, trikitilarien saioa izan zen; Leaburun,

Elkartasun Eguna izaki, bazkaria eta Toka eta Aizkolari Txapelketa izan ziren nagusi; eta Urkizun, berriz, ume jolasak eta boloak izan ziren.

Sanpedroak igaro dira eta orain lekukoa heltzeaz dauden Sanferminek hartu dute.

Olasagasti garaile

Leaburuko San Pedro jaien baitan, herenegun Gipuzkoako 1. mailako Aizkora Txapelketa izan zen ikusgai. Joxemari Olasagasti izan zen garaile, eta haren atzetik geratu ziren Mugertza, Peñagarikano, Txapartegi eta Azurmendi. Beraz, aurreikuspen guztiak betetz jan-tzi zuen txapela aizkolari igeldoarrak. Lan guztia bete ostean, bere denbora 28 minutu eta 35 segundokoa izan zen, eta 2 minutu eta 20 segundoko aldea atera zion Mugertzari. Juan Manuel Erasun zizurkildarrak parte hartzeko zen txapelketan, baina bere lesiotik oraindik osatu ez denez, ezin izan zuen lehiatu. Jende ugari joan zen Leabu-



Olasagasti, herenegun. HITZA

rura aizkora txapelketaz gozatzera, eta eguraldi ederrarekin, giroa paregabea izan zen. ◀

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. Egonela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Berogailua. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Altua, igogailuarekin. Egonela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat eraberritua. Trastelekua. Oso inguru onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 47m2 erabilgarri dituen apartamentua. Sartzeko prest. Igogailuarekin. 29.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. Aukera! Egonela, sukaldea, 3 logela eta bainugela dituen etxebizitza ederra. Ezin hobea. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Erdialdean. 117 m2. Egonela, sukaldea, 3 logela, estudioa eta 2 bainugela. Garaiea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egonela, sukaldea, 3 logela eta bi bainugela. Igogailua. 46.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Egonela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. 32.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Eraikuntza berriko etxe ederra. Informa zaitetz! Etxesagasti. 943 69 68 56.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmantua. 635 74 52 91.

GALDUTAKOAK

Zakurra. Artzai zakur kumea galdu da Alkizan. Txuri marroixka. 649 42 49 32 (Mikel).

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Pasa den larunbatez geroztik, abian da puntukoko gidabaimena. Ono iruditzen al zaizu lege berriarekin hartu diren neurri berriak? Zerbait konponduko duela uste duzu? Neurri berri horien inguruan, jakinaren gainean al zaude?». Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian eta eman zure iritzia gaiaren inguruan!

LEITZA ▶ GIZARTEA

Umoretsu joan da festa Gorritzaranen

Batez ere parte-hartzaile izaten den auzoko egunean «gustura» gelditu dira

JAIONE ASTIBIA

Umorea da festa honen ezau-garria, umorea eta lagunarteko giroa, bai bertako auzotarren artean eta bai festara joandako bisitarien artean ere. Halaxe frogatu eta egiaztatu zuten beste behin ere igandean Gorritzarango eguneko ospakizunetan parte hartu zuten pestar-leek.

Goizetik hasi eta gauerdira arte, Eguzkiñe eta Olatz trikitalarien soinuaz alaituta egin zituzten egunean zeharreko ekitaldi guztiak. Hasi, «auzoan jaio diren 4 haurreri ongietorria eta zendu diren 7 lagunei agurra egiteko» meza entzunez egin zuten, atzo antolatzaileek HITZARI zehaztu ziotenez. Eta handik atera bezain laster ekin

zieten ikuskizunei; aizkolarien saioak ikusleen zaletasuna asetu zuen. Olano eta Zabaleta auzotarrak, Minttorlako eta Bordaberriko semeak hurrenez hurren, bikote banetan zirela, Saralegi eta Rekondo izan zituzten bikote-lagun. Aurten berrikuntza ere izan zen, gainera, hain zuzen ere Minttorla anaia, motozerraz altzariak egiten aritu baitziren.

Zehaztu zutenez, sokatira saiorik egiterik izan ez bazuten ere, «txapelketako tiraldiak baitzituzten», umeentzako jokotan, umeek ez ezik «ume handi batzuk ere parte hartu zuten, nahikoa barre eraginez», ziotenez, orduan, egun guztian zehar bezalaxe, garrantzitsuena umorea dela frogatuz. Musean 19-20 bikotek



Olano eta Zabaleta aizkoran, Saralegi eta Rekondo txandaren zain, azken kolpeetan. MADDI SOROA

parte hartu omen zuten. Eta ondoren XXII. Txintxurrin Txapelketa egin zuten, ttikiena aurrenoko, bertan neskatxek ere parte hartuz; eta helduak, gero. Honetakoan, lehia adina umore erakutsiz, «begira zeuden lehiakideek luzatzen ari zena-ri».

Aurten zozketako saridunak ere gustura gelditzeko moduan izan ziren. «La Perlan saio osoa, otorduak, San Fermin Torneoko finalerako txartelak, eta herriko laguntzaileek emandako hainbat opari» zozketatu baitzituzten. «Oso ongi atera zen dena», zioten.



Jende asko bertaratu zen Kaxeta ingurura, festa girora: auzotarrak ez ezik herritik, noski, eta baita kanpotik ere etortzen da. M. SOROA

LEITZA ▶ KIROLAK



Aldaia-Olano, plazako pilota txapeldunak

J. Astibia ▶ Igor Aldaiak eta Unai Olanok irabazi zuten XIV. Plazako Binakako Eskuzko Txapelketa; 22 eta 16 irabazi zieten Iñaki Alduntzini eta Joseba Sagastibeltzari larunbat arratsaldean, harmailak betexez zituen ikusle goaren txalo artean. Hirugarren Arkaitz Bengoetxea eta Asier Gartzia gelditu ziren, Makatzagatarrei 22 eta 12 irabazi ondoren. J. ASTIBIA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko uztailaren 4a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



21

hotzena

18



BIHARKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila



Hitza



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Ludoteka zerbitzua hilaren 28ra arte, 15:30etik 17:30era. Astearte eta ostegunetan, bukaeran patin ikastaroa egiteko aukera izango dute uweek.
Ibarra. Sanbartolomeak antolatzen jarraitzeko Festa Batzordearen bilera. 20:00etan, pleno aretoan.
Tolosa. Donostiako Santa Klara irlara irteera antolatu du gaur Gazte Topaguneak. Irteera, 11:00etan, Triangulotik. Bazkaria eraman behar da.
Tolosa. Tolosako Bide Ertzean taldeak eta Cottik irailaren 9an zezen-plazan emango duten kontzerturako sarrerak salgai daude Servikutxan (www.kutxa.net) eta 943 00 12 00 telefono zenbakian.
Tolosa. Bihar paintballean jokatzeko irteera antolatu du Gazte Topaguneak. 09:00etan abiatuko dira, Triangulotik.

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortega beasaindarraren margolanak. Hilabete osoan ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Hernialde. Gregorio



Jon Goikoetxea bigarren Lokotx Biltze lehian

GAZTELU ▶ Usurbilgo Santixabel jaien barruan, Gipuzkoako Zaku Eramate Txapelketa eta Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketa jokatu zituzten joan den larunbatean, hilak 2. Gipuzkoako Herri Kirol Federakundeak antolatu zituen bi txapelketa horiek. Eta Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketa, hain zuzen ere, Tolosaldeak ere izan zen ordekaritarik, Jon Goikoetxea *Boli* gazteluarrak parte hartu baitzuen. Hain zuzen ere, bigarren postuan sailkatu zen, 7'20",34 denborarekin.

Ekaitz Arkoaga debarra izan zen nagusi proba horretan, bere lana 7'10" denborarekin osatu eta gero. Eta Goikoetxearen atzetik, hirugarren postuan, Elgoibarko Santi Maiztegi geratu zen, 7'20",55 denborarekin. «Bigarren eta hirugarrenaren arteko distantzia izan zen lehian aipagarriena, ozta-ozta ibili baitziren biek. Azkenean, Gaztelukok hartu zion aurrea», azaldu diote Hitzari Usurbilgo *Noaua!* astekarikoek (argazkian, ezkerrekoa da Goikoetxea). IMANOL UBEDA / NOAUA!

Lopez margolanak, Ostatuan ikusgai.
Tolosa. Kultur tailerretako ikasleen lanen erakusketa. Uztailaren 8a arte bisita daiteke, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Iñaki Epelderen, Jose Luis Longaronen eta Carmen Mateoren margolanak, Errota tabernan ikusgai.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentxo jatetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko *ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri.*
21:00-22:00. *Zaharrak berri.*
22:00-23:00. *Street noise.*

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Aitor Lopetegui Arrue (Tolosa).
 Gaur urte 1. Zorionak eta muxu asko aitona, amona eta ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Jone Gehara (Tolosa).
 Gaur 3 urte. Ondo pasa denon partetik.



URTE ASKOAN

Zorionak, Itoitz.
 Familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian